

UDALTZAINGOAREN ZERBITZU BEREZIEN TASEN ORDENANTZA FISKALA

1.artikulua: OINARRIA ETA IZAERA

Tokiko Ogasunen 9/2005 Foru Arauaren 21. artikuluko 1 eta 4 ataletan ezarritakoarekin bat etorrita, udal honek Udaltzaingoaren zerbitzu berezien tasak eskatuko dauz.

2.artikulua: EGITE EZARGARRIA

Tasaren egite ezargarria, hau da ordainarazpenaren gaiak dira Udaltzaingoak ematen dituen zerbitzu berezi hauek:

- 1) Garraio astunetan gidatu, zaindu eta laguntzea
- 2) Zonak mugatzea, trafikoa moztu eta erregulatzea
- 3) Ibilgailuak bide publikotik batu eta kentzeagatik
- 4) Zerbitzua behar duten bestelako jarduerak batzuk

3.artikulua: SUBJEKTU PASIBOAK

1.- Ordenantza honetan arauturiko Udaltzaingoaren zerbitzu berezien tasen subjektu pasiboak, honako hauek dira: pertsona fisikoak eta pertsona juridikoak, bai eta Bizkaiko Tributu Foru Arau Orokorren 3.3 artikuluan aipatutako erakundeak ere, ordenantza honetan araututako udal zerbitzu edo jarduerak eskatzen badituzte, eta jarduera edo zerbitzu horien onuradun edo eraginpekoak badira.

2.- Udaltzaingoaren zerbitzu berezien tasen subjektu pasiboak, zergadunak alegia, Zergei buruzko Bizkaiko Foru Arau Orokorren 34.3 artikulua aipatzen dituen pertsona fisikoak edo juridikoak eta entitateak izango dira, betiere Ordenantza honetan araututako Udal zerbitzuen edo jardueren onuradun edo eraginpeko direnean.

4. artikulua: ZERGA OINARRIA

Zerbitzu edo jardueraren benetako kostua edo aurreikusi daitekeen kostua izango da zerga-oinarria, hauek kontuan hartuta: zerbitzu edo jarduera horren kostu osoan sartzen diren gastu zuzen edo zeharkakoak, baita finantza-kostuak ere, ibilgetuen amortizazioa eta aplikatu daitezkeen gastu orokorrak, kontribuzio berezien bidez ordaindu ez direnean. Kontuan hartu beharko dira zerbitzu edo jarduera motak eta ezaugarriak eta tasa ordaindu behar duten subjektuen ahalmen ekonomikoa.

5. artikulua: TRIBUTU KUOTA

Ordenantza honetan araututako zerbitzuak emateagatik ordaindu beharreko kuotak honela finkatuta daude:

	2022 (€)
1. Garraio astunetan gidatu, zaindu eta laguntza, zerbitzu bakoitzeko	135,19
2. Zonak mugatzea, trafikoa moztu eta erregulatzea, zerbitzu bakoitzeko	40,56
3. Ibilgailuen hondakin solido legezko tramitazioa	81,11
4. Kaletik garabiarekin kendutako ibilgailu bakoitza	131,32
5. Ibilgailua gordetegian dagoen egun bakoitzeko	10,94
6. Ibilgailua ibilgetzeagaitik, bakoitzean	72,23

6. artikulua: SALBUESPENAK ETA HOBARIAK

1.- Partikular baten behar ez bezalako jardunak barik, administrazioaren beraren unean uneko beharrianek eraginda, Udaltzaingoak egin beharreko zerbitzuak eta jarduerak salbuetsita egongo dira.

2.- Tarifak ezartzean sortzen diren gainerako kuotei ez zaie inolako hobaririk emango.

7. artikulua: SORTZAPENA

1.- Zerbitzua ematen den unean sortuko da tasa, baita hura ordaindu beharra ere.

2.- Tasaren xede diren jarduketetako edozein egiten den unea hartuko da zerbitzugintzaren hasieratzat.

Horregatik, ibilgailua kentzeko edo biltzeko lana amaitu ez bada ere, ez da izango eskubiderik kuotak murrizteko, beti ere egoki diren zigorren kalte barik.

7. artikulua: AITORPENA ETA ORDAINKETA EGITEA

1.- Tasa honen menpeko jarduera eta zerbitzuak ofizioz egingo dira, Zirkulazio Kodearen 292. artikulua aplikatuz, herriko bideren batean ibilgailu bat behar ez bezala aparkaturik edo bertan behera utzita dagoenean, zirkulazioa eragotziz, zirkulaziorako arriskua sortuz edo zirkulazioa larri nahastuz.

2.- Halaber, ibilgailu-sarbide edo aparkalekuetarako erreserbak emanda dituzten erabiltzaileek salaketak jartzen dituztenean ere eman ahal izango dira zerbitzu horiek.

3.- Udaltzaingoak garraio astunei lotutako zerbitzua, zonak mugatzea, trafikoa moztu eta erregulatzeari lotutako zerbitzua ematen denean eta ibilgailua hondakin solido bihurtzearen erabakia hartzen denean honen berri Errenta Sailari emanda, honek tasaren kitapen zuzena egingo du. Beste kasuetan tasa honi dagozkion autolikidazioak Udaltzaingoak egingo ditu zuzenean, ibilgailua kendu, batu, gorde edo bertan mugitu ezinik uzten denean.

4.- Sortzen den kopurua nahitaez ordaindu beharko du erabiltzaileak, bere ibilgailua berreskuratu edo zirkulatzeko erabili nahi badu. Ordainketa egiteko epea amaituta zorra kitatu ezik, zor hori handiagoa izango da premiamendu errekaruak eta interesak direla-eta.

5.- Emandako zerbitzuarentzat aplikagarria den epigrafeari buruz zalantzarik egotekotan, Udaltzaingoaren Buruzagitzairen irizpidea izango da nagusi.

8. artikulua: KUDEAKETA ARAUAK

1.- Tasa honetako autokitapenen zerbitzuak ematen edo jarduerak egiten dituzten udaltzainek, zerbitzuak ematen diren momentuan, jasota utziko dute zerbitzuaren gaineko datuak "laneko parteetan", beti ere honako hauek jarrita:

- Ibilgailuaren matrikula eta jabea.
- Zerbitzua eman den tokia, data eta iraupena (orduak).
- Egindako zerbitzua edo jarduera.
- Kobratu den kuota.

2.- Udaltzainek ordenagailuan erregistratuko dituzte "laneko parteetan" datuak, auto-ordainketearen modalidadearen arabera. Horrela, jaso, kendu, gorde edo bertan mugitu ezinik utzitako ibilgailuaren jabeak berehala ordaindu ahal izango du tasaren zorra.

3.- Autokitapenen modalidadean kobratzen diren zerbitzu guztiak justifikatzeko balioko duen taloitegia edo inprimakia erabiliko dute udaltzainek. Ordainketaren frogagiri legez balioa eduki dezan, aurreko atalaren araberrako likidazioa emango zaio subjektu pasiboari, ordaindu duela adierazita eta likidazioa egin duen udaltzainak sinatu eta data jarririk.

4.- Udaltzainek autokitapenen modalitatean bildutako sarrerak diru-bilketaren kontu mugatuetan ordainduko dira edo osterantzean egunero emango dizkiote gordetzaileari.

5.- Autokitapenen inprimakiak betetzean argi eta garbi agertu beharko dira:

- Ibilgailuaren matrikula.
- Subjektu pasiboa (izena, bi deitura, NAN)
- Zerbitzua eman den tokia eta eguna.
- Zerga egitatea, kontzeptua adierazirik.
- Ezarritako tarifa eta horren emaitza den kuota.

6.- Udaltzainek "laneko parteetan" kopiak, ordainketen frogagiria eta diru-sarrereri dagozkien inprimakiak aurkeztu beharko dituzte Errenta Sailean, aldi horretan eginiko zerbitzuetoakoak, baita autokitapen modalitatean eginiko diru-sarrerren egiaztagiria ere, espedienteen kontrola egiteko beharrak eraginda.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Ordenantza honetan beren beregi xedatuta ez dagoena *Kudeaketa, diru-bilketa eta ikuskapenari buruzko zerga ordenantza* xedatutakoaren menpe egongo da, eta aplikatzekoa dan legeria bete beharko da.